



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 14a

66. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, aseguru konpainiak identifikatu eta haiei osasun laguntzako gastuak fakturatzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Europar Kontseiluan Nafarroak izanen duen Espainiaren ordezkariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartea sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enpresekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakitekoa zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tutera eta Iruña lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, ospitale arteko garraioaren antolamendu berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 2009an, 2010ean eta 2011n izandako etxebizitza-utzarazpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakatur. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakitekoa zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jarduera ziurtatuta dagoela. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikari” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, osasun alorreko itxaronzerrendak egiteko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, lurzoru industrialaren kokaleku, titulartasun eta erabilgarritasun-datari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2012-2013 ikasturterako plantillak prestatzeko proposatzen dituen irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakitekoa Estatuari eskaera formalik egin ote zaion Ekonomia eta Finantza Kontseiluari (Ecofin) bileretan parte hartze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, ofizioz eginiko PFEZaren aitopeneretan murriztapenerako eskubidea ematen duten pertsona lagunduak ez sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, jakitekoa Tokiko Poliziak Koordinatuzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Burlatako eskola-tailerrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroa Behearekiko harreman kultural, merkataritzako, ekonomiko eta sozialak sakontzeko jarduerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, gizareratze- edo laneratze-errenta jasotzen duten pertsonen kontrataziotik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bilkurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzen baita. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren 2002tik 2012ra arteko balantzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalek langileen historia eskuratu ahal izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, indarrean dauden Nafarroako Kutxarekiko hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxarekin edo haren edozein erakunderekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, aseguru konpainiak identifikatu eta haiei osasun laguntzako gastuak fakturatzeko neurriei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du aseguru konpainiak identifikatu eta haiei osasun laguntzako gastuak fakturatzeko neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak "Aurrekontua doitzeko neurriak. 2011-2012 ekitaldia. Laneko istripu edo gaixotasunen edo beste mota batzuetakoen osasun-laguntzatik eratorritako gastuak identifikatzeko eta, hala dagokionean, aseguru-etxeei eta mutuei fakturatzeko hartu beharreko neurriak" gaiari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00050), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilariak:

Osasun Departamentuak hainbat neurri abian jarri ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuek laneko istripu edo gaixotasuna elementu erabakigarria izan den kasuetan emandako osasun-laguntzei antzemateko; izan ere, halako kasuetan, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutua batek hartu behar du osasun-laguntza bere gain, eta, horretarako, hari fakturatu behar zaizkio dagozkion osasun-laguntzak.

Xede horrekin, zirkuitu berri bat abian jarri nahi da datozen hilabeteetan, O-NOZen fakturazio-unitate guztietara igortzeko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (INSS) nahiz auzitegi eta epaitegien arabera osasun-laguntza jakin bat

laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutua batek eman beharko lukeen kasuei buruzko informazioa. Neurri horrek barne hartuko ditu honako kasu hauek ere: osasun-laguntza hasieran O-NOZek eman arren gerora laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuek halabehar profesionalen ondoriozkoak direla aitortutako kasuak.

Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuetako arduradunei eta mediku-taldeei begirako zuzeneko neurriei dagokionez, aipatu behar da 2011ko irailaren 28ko "Aurrekontua doitzeko neurriak. 2011-2012 ekitaldia" dokumentuaren xedea dela diru gehiago lortzea, lehen aipatutako barne-prozedurak abian jarritz, prozedura horiek aukera emango dutelako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutua bati fakturatzeko O-NOZek eman arren halabehar profesionalen ondoriozkoak diren osasun-laguntzak.

Badago langileak erreklamazioa egiteko prozedura bat, baldin eta ados ez badago gaixotasun edo istripu jakin bati buruz mutuak egindako ebaluazioarekin. Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuari erreklamazioa jartzeko, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuei erreklamazioak egiteko bulego birtualera jo daiteke (Lan Ministerioak kudeatzen du), edo Gizarte Segurantzak erreklamazio horiek bideratzeko duen telefonora deitu (902112651).

Erreklamazioa zuzenean onar dezake mutuak edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren bidez ebatz daiteke. INSSren ebazpenen kontrako helegitea aurkeztu nahi izanez gero, auzitara jo beharra dago. Praktikak erakusten duenez, oso gai gutxi heltzen dira auzitegiatara.

Garrantzizkoa da prozedura hori aipatzea, hartatik ondorioztatzen baita laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuen jarduera kontrolatzeko, zaintzeko, ikuskatzeko eta zigortzeko aginte eskumenduna Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa dela. Gainera, halaxe jasota dago,

araz, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, hura garatzen duten arauetan eta aipatutako ministerioaren egitura organikoa arautzen dutenean.

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko Osasun Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak Osasun Departamentuaren egitura organikoa zehazten duen abuztuaren 24ko 134/2011 Foru Dekretuan jasota daude. Horien artean dago osasun-zentroak baimentzea, kontrolatzea eta ikuskatzea. Eginkizun horiek betez, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuek beren osasun-

laguntza emateko dituzten instalazioak, materialak eta baliabideak araudiari egokitzen zaizkion kontrolatzen du Osasun Zuzendaritza Nagusiak; baina eginkizun horietatik inola ere ez da eratorzen gaixotasun bat gaixotasun profesional modura edo istripu bat laneko istripu modura sailkatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, Europar Kontseiluan Nafarroak izanen duen Espainiaren ordezkaritzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Europar Kontseiluan Nafarroak izanen duen Espainiaren ordezkaritzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru-parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Nafarroak

Europar duen ordezkaritzari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00052), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak: Seihileko honetan, Espainiaren delegazioko autonomia-erkidegoen ordezkaritzara baino ez du, Europar Batasuneko Hezkuntza eta Kulturako Ministroen Kontseiluetan, aurreko erantzunean aditzera eman bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Parlamentario Popular parlamentu-taldeko foru-parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Navas de Tolosako Guduaren Ibilbideko Herrien Ligari buruz idatziz erantzuteko galderari dagokionez (PES-00053), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuak aurreko urtarrilaren 20an izan zuen Ibilbidearen berri, Fitur 2012ko stande ekimen horren jendaurreko aurkezpena egiteko utzi zuelarik.

Egun hartan bertan, Navas de Tolosako Guduaren Ibilbideko udaletako alkateekin bilera bat izan zen, eta alkateek adierazi zuten Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritzeko interesa zutela, Navas de Tolosako Guduaren zortzigarren mendeurrenaren oroitza-ekitaldiei begira, baita Ibilbidearen sustapenari begira ere. Hauek dira Ibilbideko udalerrak: Ciudad Realeko bost, Aldea del Rey, Calzada de Calatrava, Santa Cruz de Mudela, Viso del Marqués eta Almuradiel; eta Andaluziako hiru, La Carolina, Santa Elena eta Vilches.

Era berean, Navas de Tolosako Guduaren Mendeurrenaren oroitza-ekitaldien barruan Foru Komunitateari egin zitzaion omenaldiaren ondoren, Komunitateko lehendakariak bilera bat egin zuen La Carolinako alkatearekin, eta bilera hartan, Nafarroako Gobernuaren eta La Carolinaren artean lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko aukeraz hitz egin zuten; une honetan, akordio hori aztertzeko ari dira dagokien arloak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilean.

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru-parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Espainiako Itzuliko etapak diru pribatuarekin finantzatzeko izapideei buruz egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00051), hau erantzun du Lehendakaria, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilari eta lehen lehendakariordeak:

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak ez dauka inolako zerbitzurik Espainiako Itzuliak Nafarroan izango dituen etapak ordaintzeko kostua finantzatzeko baliabide pribatuak eskuratzen espezializatuta.

Bestalde, Unipublic enpresa da “Vuelta A España” txirrindularitza-lasterketa profesionala antolatzeko eta ustiatzeko eskubideen jabea, eta 2012an lasterketa horren bi etapa Nafarroako Foru Komunitatean bi etapa egitea aurreikusi dute antolatzaileek. Era berean, antolatzaile eta ustiapenaren eskubide guztien jabe eskusiboa den heinean, goian aipatutako enpresa da Nafarroan egingo diren etapetan hirugarren pribatuek tokiko publizitatea egiteko lankidetzaharremanak proposatzeko edo lagatzeko eskumena duen erakunde bakarra.

Hortaz, logikari jarraituz eta kontuan harturik parlamentu-akordio bidez Nafarroako Gobernuari eskatu zaiola ekitaldi hori kontratatzekeo gastu publikoa arintzeko finantzaketa pribatua bila dezan, honako proposamen hau egin da: etapa horiei buruzko kontratuan Unipublic enpresarekiko elkarrekiko adostasuneko klausula bat gehitzea, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren zuzendari-kudeatzaileak, Nafarroako Gobernuaren izenean, Unipublic SArI eman diezaion tokiko finantzaketa pribatua bilatzeko izapideak abiatzeko enkargua.

Ordainetan, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren zuzendari-kudeatzailearen bidez, espediente bat abiaraziko du, ofizios, Nafarroako etapak gizarte-intereseko izendatzeko, publizitate-inbertsioak sustatzeari begira, zerga-arintzeak eskainiz.

Azkenik, kontratu horretan, Nafarroako Gobernuak ekitaldi hori dela-eta egin beharreko ordainketa arintzearen bildutako diruaren trukean Unipublic enpresari nolabaiteko ordaina ematea erabaki ahal izango dira. Azkenik, Unipublic arduratuko da tokiko babesleak bilatzeko bideak antolatzeaz.

Gaur egun, oso bide onetik doaz Unipublic enpresarekiko elkarrizketak, eta administrazio-izapidea amaitzeke badago ere, babesleak bilatzeko eginkizuna Unipublic sozietatearen esku geldituko da.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Lehen lehendakariordea eta Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

## **Galdera, Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Fotóni buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00055), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuaren estimazioaren arabera Fotón enpresaren ekoizpen-jarduera abian jartzeko sinatu beharreko hitzarmenak sinatzeko epeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak dakienez, Fotón enpresaren ekoizpen-jarduera abian jartzea ez dago inongo hitzarmen espezifikoren sinaduraren mende.

Proiektu pribatua izanik, akziodunek erabakiko dute noiz eta nola abian jarriko den Fotón Europa Motor enpresaren ekoizpen-jarduera.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak interes bizia du proiektu hori gauza dadin eta Nafarroan lehenbailehen abian jar dadin, eta bere esku dauden jarduera guztiak egingo ditu hala izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin sinatutako hitzarmenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Fotóni buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00056), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

1- Zenbat akordio, hitzarmen, etab. sinatu ditu Nafarroako Gobernuak edo haren edozein enpresa publikok Inceisa, Unitec Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin, halakorik sinatu badu? Zer akordio, hitzarmen, etab. dira eta zein dira haien oinarriak? Akordio, hitzarmen... horien guztien kopia igorri da.

2- Aipatutako enprekin sinatutako akordio, hitzarmen eta abarrei dagokienez, zer egoeratan daude, horiek betetzeari dagokionez?

2010eko irailaren 25ean esparru-akordio bat sinatu zuten Fotónek, Nafarroako Gobernuak eta INCEISAK (Mao jaunaren jabetzako enpresa). Akordio horren helburua zen hiru aldeen artean konpromiso bat hitzartzea, Nafarroan proiektua gauzatzeko. Akordio horren arabera, Nafarroako Gobernuak honako zeregin hauek gauzatzeko konpromisoa hartu zuen:

Ibilgailu elektrikoen Europako merkatuaren egoerari buruzko azterketa egitea

Nafarroan osagaien hornitzaileak bilatzea

Ibilgailu elektrikoen erabilera sustatzea eta, bereziki, Nafarroan ibilgailu horiek erabiltzeko iza-pideetarako laguntza ematea.

Nafarroako Gobernuak zeregin horiek bete dituela irizten zaio.

Aldeen artean hainbat bilera egin ondoren, 2011ko ekainaren 15ean Nafarroako Gobernuak eta Sodenak Fotón Europa Motor, S.L. enpresari laguntza emateko akordioa sinatu zen. Akordio horren sinaltzaileak Nafarroako Gobernua, Sode-na, Makal (Mao jaunaren jabetzako sozietatea) eta Fotón AUV Bus izan ziren. Honako hauek dira akordio horren alderdi aipagarrienak:

Nafarroako Gobernuak eta Sodenak sostengua emango dute Nafarroan autobus iraunkorren lantegia ezartzeko.

Fotón AUVk makinak, teknologia eta langileen prestakuntza eskainiko dizkio sozietateari; eta MAKALek Tafallan dituen lursailak eta nabeak ezarriko ditu. Ekarpene horiek merkatu-balioaren arabera egingo dira.

Sodenak borondatea adierazi du proiektua partzialki finantzatzeko, kapital-partaidetzaren bidez, partaidetza-maileguaren edo/eta finantza-abalaren bidez. Negozio Planak hala eskatuz gero, finantzaketa horren zenbatekoa Fotón AUV eta Makal batera egindako diru-ekarpena hainbatekoa izan daiteke, eta haiek ekarpenak egiten dituzten garai berean egin daiteke (makinen ekarpena esku-dirutan egindako ekarpen gisa hartuko da, baldin eta makina berriak badira).

Nafarroako Gobernuak laguntzak emango ditu inbertsiorako, I+G+Brako, enplegua sustatzeko eta langileak trebatzeko; baita zerga-laguntzak ere.

Esklusibitatea ezarri da; horren arabera, sustatzaileek modu esklusiboan negoziatu beharko dute Nafarroako Gobernuarekin eta Sodenarekin proiektuaren ezarpena eta exekuzioa, 2011ko abenduaren 31ra arteko eperaino.

Aldeek egutegi bat hitzartu dute; mugarri hauek dira egutegi horretan adierazgarrienak: behin betiko proiektua aurkeztea, inbertsioak eta finantza-beharrak barne, 2011ko irailaren 30a baino lehen; alde bakoitzak egingo dituen ekarpenak hitzartzea, 2011ko urriaren 31 baino lehen; eta Sodena proiektuan sartzea, 2011ko azaroaren 30a baino lehen.

2011ko abenduaren 14an, ikusirik 2011ko ekainaren 15ean sinatutako akordioa 2011ko abenduaren 31n iraungiko zela, Sodenak Addenda bat prestatu, eta Mao jaunaren taldeari igorri zion,

akordioa 2012ko ekainaren 30era arte luzatzeko. Addenda hori artean sinatu gabe dago.

Nafarroako Gobernua/Sodena eta Fotón Europa Motor, S.L. lankidetzan ari dira gaur egun ere, proiektua aurrera atera nahian; 2012ko otsailean, Fotón etxeko zuzendaritzako kideekin elkartu zen Sodena Txinan, eta, han egindako bileren arabera, Fotónek Tafallako inbertsio-proiektuan interes bizia duela dirudi.

Nafarroako Gobernuak eta Sodenak proiektuari laguntza emateko prest jarraitzen dute, eta aukera dago, halaber, Inbertsioen Europako Bankuko funtsen bidez maileguei laguntza zabalagoa emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 17an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Pilavesa

2012ri buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00054), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Proiektua abian jartzeko espedienteak izapidetu da. Aurreko apirilaren 4an Gobernu Saioan onartu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 17an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



## **Galdera, jakitekoa zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du jakitekoa zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 17ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Patxi Leuza García jaunak Nafarroako Museoa Oinutsen Kaleko Haurtzaindegira zabaltzeko aurreikusitako lanen eraginari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES 25/12), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Lehenik eta behin, jakinarazi beharra dago 2010eko ekainaren 21eko Nafarroako Gobernuaren Akordio bidez Protokolo Orokor baten testua onartu zela, Iruñeko Udalarekin sinatzeko, Iruñeko alde zaharrean haurreskola berria eraikitzeari eta ondoren Nafarroako Museoa handitzeari buruz.

Protokolo hori bi aldeek berretsi zuten, eta, hari jarraituz, Iruñeko Udalak konpromisoa hartu du Iruñeko Oinutsen kaleko 72.A higiezinaren jabetza doan lagatzeko, higiezin horretan ezar dadin hau-

rreskola, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren mendekoa eta gaur egun Oinutsen kale horretako bertako 2. zenbakian dagoena.

Nafarroako Gobernuak, era berean, konpromisoa hartzen du Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirola departamentuak (gaur egun, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirola eta Gazteria) egin beharreko lanak egin ditzan, higiezina lagatze horretan aurreikusitako xederako egokitzeo.

Era berean, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du Nafarroako Museoaren handitzea sustatzeko eta finantzatzeko, Oinutsen kaleko 2. zenbakiko higiezinan kokatzeko (garai batean Adingabeen Epaitegiaren egoitza izan zen); lan horiek haur eskola berria eraiki eta handi bi urteko epean hasi beharko dira.

Gaur egungo egoera ekonomiko zaila dela medio, Departamentuari zalantza sortu zaio haurreskola berria Iruñeko Udalak lagatako higiezinan eraikitzeo proiektua ekonomikoki bideragarria ote den, nahiz eta doan lagatako higiezinan, inbertsio handia eskatuko baitu eraikuntzak.

Nolanahi ere, inbertsio horri ezingo zaio ekitaldi honetan aurre egin, ez baitago proiektuari heltzeko aurrekontu-hornidurarik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 30eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak txertatu aurreko diagnostiko genetikoa O-NOZEN zerbitzuetan sartzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00057), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Nafarroako Ospitaleguneko Emankortasun Unitateko zerbitzuetan ez da sartzen txertatu aurreko diagnostiko genetikoa, ez dagelako Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuen barruan.

Berriki, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak bi lan-talde sortu ditu, autonomia-erkidego guztien partaidetza dutenak, bata oinarrizko zerbitzu sortari buruzkoa eta bestea zerbitzu sorta eguneratzeari buruzkoa, autonomia-erkidegoen zerbitzuak homogeneizatzeko eta bateratzeko eta prestazio berriak erantsi aurretiko ebaluazioa egiteko. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez dauka aurreikusita txertatu aurreko diagnostiko genetikoa bere zerbitzuetan sartzea, aldez aurretik lan-talde horiek ebaluazioa egiten ez duten bitartean eta Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu sortan sartzeko balizko zerbitzu gisa definitzen ez den bitartean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Erregelamenduen 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tuteran eta Iruñan lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak aintzat hartuko duen Nafarroako Parlamentuaren erabakia eta Tuteran eta Iruñan lotzen dituen ospitalearteko autobus-zerbitzuari eutsiko dion.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak "gaixoen erietxe-arteko garraioa, indarrean dagoen Ganberaren Erregelamenduekin bat etorrira" gaiarekin loturiko zenbait alderdiri buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00061), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Apirilaren 3an gai berari buruz Parlamentuan egindako agerraldian adierazitakoari jarraipena emanez, jakinarazi nahi dizut Osasun Departamentuaren asmoa dela erietxe-arteko garraio-zer-

bitzua Nafarroako Gobernuak - Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez- eta zerbitzua dagokion esparru geografikoko udalek finantzatzea.

Zerbitzuaren gaur egungo erabilera kontuan hartuta, Tuterako Osasun Arloan abian jarri nahi da eredu berri, Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta Nafarroako Ospitalegunearen arteko joan-etorrietan gaixoak eta laguntzailea garraiatzeko.

Aurreko guztiaren kalterik gabe, zerbitzu hori Nafarroako beste osasun arlo batzuetan ere plante liteke, adibidez, Lizarran, betiere, dagokien eskualde-erietxetik Nafarroako Ospitalegunerako joan-etorrietarako, eta honako bi baldintza hauek betetzen diren kasuetan:

1) dagokion eskualde-erietxearen erreferentzia-eremuko udalen gehiengoak zerbitzua ezartzeko interesa eta zerbitzua finantzatzen parte hartzeko borondatea izatea, eta

2) zerbitzuak arrazoizko erabilera izatea, baliabide publikoen aplikazioaren eragingarritasuna justifikatzeko moduan.

Udalen interesa neurtzeko, zerbitzu hori Nafarroako Gobernuarekin batera finantzatzeko duten aukera hartuko da kontuan, eta udal-erakundeek

Osasun Departamentuari eman beharko diote horren berri.

Une honetan Tuterako Osasun Arloan aztergai den zerbitzu-eredua erabiltzailearentzako doakotasunean oinarritua da, berez. Nolanahi ere, azkenean zerbitzu horri eusteko ardura esleituko zaien erakunde publikoen inplikazioaren mende egongo da doakotasuna.

Lizarrako García Orcoyen erietxearen eta Iruñeko Nafarroako Ospitalegunearen arteko joan-etorrietan zerbitzuaren erabilera hain txikia izatearen arrazoiari dagokionez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ustez García Orcoyen erietxearen kokalekua dela arrazoi nagusia. Kontuan hartuta esparru horretako herrigune handienak erriberakoak direla eta, beraz, erabiltzaile potentzial gehienentzat ez du merezi García Orcoyen erietxeraino joan eta han autobusa hartzea, joan-etorrietan eta itxaronaldietan eman beharreko denbora dela-eta, denbora bera beharko bailukete Iruñera zuzenean iristeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## Galdera, ospitale arteko garraioaren antolamendu berriari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du ospitale arteko garraioaren antolamendu berriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 20ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak "indarrean dagoen Ganberaren Araudiarekin bat etorrita gaixoak erietxe batetik bestera garraiatzearekin loturiko zenbait alderdiri" buruz idatziz erantzuteko

egindako galderari (8-12/PES-00065) hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Apirilaren 3an gai berari buruz Parlamentuan egindako agerraldian adierazitakoari jarraipena emanez, jakinarazi nahi dizut gaur egungo eredu aztertu ondoren erabilera bereziko garraio erregular berri gisa ezarri nahi den hori indarrean dagoen araudian pertsonen garraiorako aurreikusitako modalitate bat dela; zehazki, bidaiariak errepidez garraiatzeko modalitateak arautzen dituen abenduaren 9ko 350/1998 Foru Dekretuan aurreikusia.

Asmoa hauxe da: Nafarroako Gobernuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, eta zerbitzua dagokion geografia-eremuko udalek finantzatutako zerbitzu bat ezartzea.

Zerbitzuaren gaur egungo erabilera oinarri hartuta, Tuterako Osasun Arloan abian jarri nahi da eredu berria, Tuterako Reina Sofia Ospitalearen

eta Nafarroako Ospitalegunearen arteko joan-etorrietan gaixoak eta laguntzailea garraiatzeko.

Aurreko guztiaren kalterik gabe, zerbitzu hori Nafarroako beste osasun arlo batzuetan planteatu liteke, betiere, dagokien eskualde-erietxetik Nafarroako Ospitalegunerako joan-etorrietarako, honako bi baldintza hauek betetzen diren kasuetan:

1) dagokion eskualde-erietxearen erreferentzia-eremuko herrietako udalen gehiengoak zerbitzuan interesa izatea eta zerbitzua finantzatzen parte hartzeko borondatea izatea, eta

2) zerbitzuak arrazoizko erabilera izatea, baliabide publikoen aplikazioa eragingarria dela egiaztatzeko moduan.

Udalen interesa neurtzeko, zerbitzu hori Nafarroako Gobernuarekin batera finantzatzeko duten

aukera hartuko da kontuan, eta udal-erakundeek Osasun Departamentuari eman beharko diote horren berri.

Une honetan Tuterako Osasun Arloan aztergai den zerbitzu-eredua erabiltzailearentzako doakotasunean oinarritua da, berez. Nolanahi ere, azkenean zerbitzu horri eusteko ardura esleituko zaien erakunde publikoen inplikazioaren mende egongo da doakotasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, 2009an, 2010ean eta 2011n izandako etxebizitza-utzarazpenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du 2009an, 2010ean eta 2011n izandako etxebizitza-utzarazpenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak Nafarroan 2009., 2010. eta 2011. urteetan gertatutako etxegabetzei buruz idatziz egindako galderari erantzunez, hau erantzun dio Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak:

Etxegabetzei buruzko enkante judizialak jakinaraztea Epaitegiaren ardura da, eta ez da ohikoa izaten enkantea bera nahiz haren emaitza iragarzea. Hortaz, ez daukagu azken urteetan Nafarroan gertatutako etxebizitza babestuen etxegabetzei buruzko datu global edo estatistiko berririk.

Bi jakinarazpenak egitea bidezkoa da, Nafarroako Gobernuak aitortua baitu Foru Komunitatean etxebizitza babestuekin egiten diren transmisio ororen gaineko haztatze-eskubidea eta atzera egiteko eskubidea; Viviendas de Navarra, SA (VINSA) -gaur egun Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)- enpresa publikoari esleituta dauka jarduera horien kudeaketa, hain zuzen ere.

Enpresa horren egitekoa da laguntza-jarduerak gauzatzea, Departamentuak haztatze-eskubidea eta atzera egiteko eskubidea gauzatzea erabakitzen duen edo ez, horren arabera; hala, administrazio-erakundeari dagokio erabakia hartzea. Departamentuaren datu-baseak aztertuta, ez da ageri galderan aipatutako bitartean etxegabetze judizialen ondorioz haztatze-eskubidea edo atzera egiteko eskubidea gauzatzeko inolako ebazpenik.

Noizbait, etxegabetze-prozedura hasita zegoela, epaitegiek eskatu izan digute, etxebizitzaren arloko departamentu eskumenduna izanik, txostena egitea enkante judizialeko eskaintzaren gehieneko prezioari buruz, baita erosleak nolabaiteko babes publikoko erregimena duten etxebizitzaren esleipenduna izateko bete beharreko baldintzei buruz ere, eta halaxe egin eta igorri izan zaizkie txostenak eskaria egin duten epaitegiei.

Eta halaxe jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 25ean

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano

## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko hitzarmenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Patxi Leuza García jaunak NOSek 2010ean eta 2011n hitzarmen bidez bere gain hartutako betebeharrak egikaritzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00059), hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Denboraldi artistikoan Iruñean egindako 24 kontzertuak:

2010ean egindako zikloko kontzertuak:

V. zikloa	Baluartea	Urtarrilak 14 eta 15
VI. zikloa	Baluartea	Urtarrilak 21 eta 22

VII. zikloa	Baluartea	Otsailak 4 eta 5
VIII. zikloa	Baluartea	Martxoak 25 eta 26
IX. zikloa	Baluartea	Apirilak 8 eta 9
X. zikloa	Baluartea	Apirilak 29 eta 30
XI. zikloa	Baluartea	Ekainak 3 eta 4
XII. zikloa	Baluartea	Ekainak 10 eta 11
I. zikloa	Baluartea	Irailak 9 eta 10
II. zikloa	Baluartea	Irailak 30 eta urriak 1
III. zikloa	Baluartea	Urriak 28 eta 29
IV. zikloa	Baluartea	Azaroak 11 eta 12

2011n egindako zikloko kontzertuak:

V. zikloa	Baluartea	Urtarrilak 27 eta 28
VI. zikloa	Baluartea	Otsailak 10 eta 11
VII. zikloa	Baluartea	Otsailak 24 eta 25
VIII. zikloa	Baluartea	Martxoak 24 eta 25
IX. zikloa	Baluartea	Apirilak 7 eta 8
X. zikloa	Baluartea	Apirilak 14 eta 15
XI. zikloa	Baluartea	Maiatzak 19 eta 20
XII. zikloa	Baluartea	Ekainak 2 eta 3
I. zikloa	Baluartea	Irailak 8 eta 9
II. zikloa	Baluartea	Urriak 6 eta 8
III. zikloa	Baluartea	Urriak 27 eta 28
IV. zikloa	Baluartea	Abenduak 22 eta 23

Ikasleentzako kontzertuak eta familientzako kontzertuak:

2010ean egindako kontzertuak:

“Faust doktorearen laborategia”	Baluarte	Otsailak 18 eta 19
“Pedro eta otsoa”	Gaiarre Antzokia	Apirilak 14, 15 eta 16
“Beethovenen bosgarrena”	Barañaingo Auditorioa	Apirilak 20, 21, 22 eta 23

2011n egindako kontzertuak:

“Analfabia planeta”	Barañaingo Auditorioa	Otsailak 17 eta 18
“Gustukoa duzu Brahms?”	Barañaingo Auditorioa	Martxoak 16, 17 eta 18
“Händelen magia eta eromena”	Barañaingo Auditorioa	Martxoak 28, 29, 30 eta 31 eta apirilak 1
“Babar elefantetxoaren istorioa”	Barañaingo Auditorioa	Urriak 19, 20 eta 21

Bestalde, honako kontzertu hauek egin ziren Nafarroako beste herri batzuetan:

– Ganbera-musikako kontzertua, Tuteran, 2011ko irailaren 2an.

– Kontzertu sinfonikoa, Tuteran, 2011ko abenduaren 16an.

Erakundeekiko konpromisoetatik eratorritako emanaldiak:

– Nafarroaren Eguneko kontzertua, Baluartan, 2010eko abenduaren 3an.

– Gaztambide Antzokiaren inaugurazio-kontzertua, 2011ko martxoaren 28an.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Pirinioetako Lan Batzordearen lehendakaritza daukan bitartean Nafarroako Gobernuak garatuko duen lan programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru-parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Pirinioetako Lan Komunitateari buruz idatziz erantzuteko

egindako galderari dagokionez (PES-00062), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak Pirinioetako Lan Komunitateko lehendakaritza bere gain izango duen bitartean garatuko duen lan-programari dagokionez, erantzun honi atxikita dago martxoan egindako bisita-errondan bazkideei aurkeztutako Lehendakaritza Programaren dokumentua (1. eranskina).

Pirinioetako Lan Komunitateak Nafarroan egindako lehen bileren ebaluazioari eta ondorioei dagokionez, Nafarroak lehendakaritza bere gain hartu zuenetik orain arte bost bilera egin ditu Pirinioetako Lan Komunitateak Foru Komunitatean, denak ere Nafarroako Artxibo Nagusian. Atxikitako koadroan (II. Eranskina) zerrendatuta daude bilera horiek, baita horien data, gutxi gorabeherako partaideen kopurua, edukia, ondorioak eta ebaluazioa ere. Nolanahi ere, ebaluazio orokorra oso

positiboa da; izan ere, partzuergo gisa eta Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Haraindiko Lankidetzarako Programa Operatiboaren kudeaketaren aginte gisa egin beharreko bilerak egin ditu erakundeak, funtzionamendu arruntari zegozkionak, eta Nafarroak bere lehendakaritza-programan proposatutako Batzordeen Arteko Mintegia ere egin da. Bilera horietan parte-hartze handia izan da deialdia zenbat partaideri egin zaien kontuan hartuta, eta oso ondorio interesgarriak atera dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru-parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## **Galdera, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen haur eskolei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatutako haurreskolei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES 60), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Gaur egun, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak honako haurreskola hauek kudeatzen ditu, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez:

- Egunsenti, Burlatan
- Izarra, Lizarran
- Niño Jesús, Corellan
- Nuestra Sra. de los Ángeles, Iruñean (Alde Zaharra)

- Ninia Etxea, Iruñean (Bigarren Zabalgunean)
- San Jorge, Iruñean (San Jorge)
- Santa Teresa, Iruñean (Txantrea)
- Roncesvalles, Iruñean (Etxabakoitz).

Haurreskola horiek Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren mende daude eta haren gastu-aurrekontuaren kontura finantzatzen dira, %75ean, gutxi gorabehera; gastuaren gainerako %25a gurasoen kuoten bidez finantzatzen dute.

Galderan aipatutako martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen du, eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta zikloaren hezkuntza-edukiak ezartzen ditu.

Departamentu honi atxikitako haurreskolek Foru Dekretuak hezkuntza-ziklo horri buruz ezartzen dituen zehaztapenetara egokitu behar dute ziklo hori eskaini ahal izateko, nahiz eta dekretu horrek ezartzen duen sorrera- eta baimen-sistematik kanpo egon.

Foru Dekretua, bestalde, aldatu egingo da, Departamentu honi jakinarazi zaionez; aldaketa hori izapidetzen ari da, une honetan, Hezkuntza Departamentua.

Haurreskolen kudeaketari dagokionez, azpimarratzekoa da, gaur egun, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren mende Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren esku dagoela.

Nolanahi ere, litekeena da aurrera begira egoera hori aldatzea. Xede horrekin, elkarriketak

egingo dira Hezkuntza Departamentuarekin eta haurreskolak dauden herrietako udalekin, jakitun izanik goian aipatutako zortzi haurreskolak besterik ez daudela (102 dira guztira) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren mende, gaur egun; gainerakoak udalarenak dira.

Edonola ere, gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen mende dauden haurreskoleta-ko langileak Nafarroako Berdintasunerako Institu-

tua erakunde autonomoari atxikita daude, haren mende baitaude haurreskola horiek, esan bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriko kontseilaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakaturata.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakaturata.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroak 2012ko Estatuaren Aurrekontu Orokorrei egin beharreko ekarpenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00063), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

1) Hitzarmen Ekonomikoaren arabera, bere gain hartu gabeko eskumenengatik Nafarroak urtero estatuko karga orokorretara egin beharreko ekarpenak bi administrazioen artean hitzartu behar dituzte.

Nafarroak nahiz estatuak zeinek bere aurrekontuei begirako aurreikuspenak egiten dituzte, urtero. Litekeena da aurreikuspen horiek bat ez etortzea, ordea; hala, Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorrak onartu ondoren Hitzarmen Ekonomikoak dioenari jarraituz bi administrazioen

arteak hitzartuko dutena da zenbateko garrantzizkoena eta adostasuna eman beharrekoa.

2) Bosturtekoaren oinarri-urteaz bestelako urteetan (adibidez, 2012an) Nafarroak ordaindu beharreko ekarpena kalkulatzeko, Hitzarmen Ekonomikoaren 60.2 artikuluan aurreikusitako behin-behineko eguneratze-indizea aplikatzen zaio bosturtekoaren oinarri-urteko ekarpenari (2010. urtekoari, kasu honetan).

Bestalde, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen bidez arautu zen erkidegoen finantzaketa-sistemaren erreformaren ondorioz, 2011ko aurrekontutik aurrera igo egin da zerga hitzartuetatik autonomia-erkidegoei lagatzeko ehuneko, eta, hortaz, bosturteko honetako 2011-2014 bitarteko urte bakoitzerako 2010eko diru-sarreraren aurreikuspenaren homogeneizazio bat gauzatu behar da, eguneratze-indizea zehazteko.

Era berean, 2007ko azaroaren 7ko Koordinazio Batzordearen akordioak aurreikusten duen moduan (2011ko otsailaren 16ko Akordio bidez luzatua), Nafarroak parte hartzen du estatuak Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren maila hitzartua finantzatzera bideratzen dituen aurrekontu-horniduretan, ekitaldi bakoitzean bere egozte-indizeari (%1,69) dagokion zenbatekoa murriztuz bere ekarpenean.

Une honetan ez dago Nafarroak 2012. urtean ordaindu beharreko behin-behineko ekarpena kalkulatzeko aldagai horien gaineko beharrezko informazio guztia eskuragarri, baina informazio oso esanguratsua daukagu, eta esan daiteke Nafarroaren Aurrekontu Orokorretan 2012rako finkaturata dagoen zenbatekoa nahikoa izango dela Nafarroa-



ren eta estatuaren artean lortu beharreko akordioa lortzeko.

3) Hemen beheko taulan adierazi dira azken 10 urteetako behin-behineko ekarpenaren zenbatekoak, dagokion erregularizazioarenak eta behin betiko ekarpenenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

	<b>Behin-behineko ekarpena</b>	<b>Erregularizazioa</b>	<b>Behin betiko ekarpena</b>
2002	424.876.300	-3.350.600	421.525.700
2003	447.429.000	-2.386.500	445.042.500
2004	489.692.500	-3.449.200	486.243.300
2005	534.165.500	19.326.200	553.491.700
2006	570.753.800	35.445.700	606.199.500
2007	657.631.400	-2.438.000	655.193.400
2008	703.990.800	-213.138.730	490.852.070
2009	613.283.530	-268.624.080	344.659.450
2010	504.929.830	-24.323.660	480.606.170
2011	498.105.650	-8.065.890	490.039.760

## **Galdera, jakitekoa zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jarduera ziurtatuta dagoela.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du jakitekoa zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jarduera ziurtatuta dagoela.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 30eko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Trenasa enpresari buruz idatziz erantzuteko egindako

galderari dagokionez (8-11-/PES-00058), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Emandako informazioa 2011ko azaroan eta 2012ko urtarrilean Trenasa enpresarekin izandako bileretatik atera da; bilera horietan, besteak beste, enpresaren egoera, etorkizunera begirako aurreikuspenak eta eraldaketa-zentroetan, uren arazketan eta garraio elektrikoan lantzen ari diren ikerketa-ildo berriak aztertu ziren..

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 8an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikan” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikan” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 20ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak “Osasun-asiestentzia Nafarroako Unibertsitateko Klinikarekin” 540002-2500-311105 partidari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari (8-12/PES-00064)

hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Galdera: 1. Kontuan hartuta Nafarroaren Aurrekontu Orokorra onartu zirenetik 3 hilabete besterik ez direla igaro, zer gastu gehigarri ekarri ditu kreditu-handitze horrek: eratorpenak, hitzarmena zabaltzea, etab.? Erabaki hori justifikatzen duten datuak igortzea ere eskatzen dugu.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintza Errege Dekretuaren 77. artikularekin bat etorrita (enpresen Gizarte Segurantzarekiko lankidetzaren arautzen du), enpresek Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jardun ahal izango dute, gaixotasun arruntaren eta lanetik kanpoko istripuaren ondoriozko aldi baterako lan-ezintasunaren eta osasun-laguntzaren kudeaketa bere gain hartuz. Lankidetzaren molde horri heltzen dioten enpresek Gizarte Segurantzako kuota murrizteko aukera izango dute.

Nafarroan, entitate bakarra dago gaur egun ezaugarri horiek dituen: Nafarroako Unibertsitatea. Erakunde horrek 1982ko urriaren 22tik eskaintzen die osasun-laguntza bere langile eta onuradunei; Gizarte Segurantzako Erregimen Ekonomiko Orokorren Zuzendaritza Nagusiak data horretan eman zion gaixotasun arruntaren eta lanetik kanpoko istripuen halabeharrei dagozkien prestazioen osasun-alderdia eta alderdi ekonomikoa zuzenean bere gain hartzeko baimena, Nafarroan zerbitzua ematen duten langileei dagokiez.

Sistema horretan aldaketak egin ziren autonomia-erkidegoek osasun arloko eskumenak beren gain hartu eta osasun-laguntza Gizarte Segurantzaren kuoten bidez finantzatu ordez aurrekontu orokorretatik finantzatzen hasi zenean.

Hain zuzen ere, Estatuko Administrazioak erabaki zuen, 2006an, ez ziela zertan aurre egin osasun-prestazio horretatik eratorritako obligazioei, eta Nafarroako Unibertsitateak errekurtsioa ezarri zuen zegokion auzitegiaren aurrean, erabaki haren kontra.

Ordurako denbora asko zen Nafarroak osasun arloko eskumenak bere gain hartuak zituela eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitatea zen Nafarroako osasun-laguntzaren arduraduna. Eta, horren ondorioz, Nafarroaren 2006ko Aurrekontu Orokorretan (Parlamentu honek onartu zituen) partida bat sartu zen "Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-arreta" izenekoa, 2.000.000€-ko hornidurarekin.

2006ko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako diru-laguntza nominatibo hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileak abenduaren 26an emandako 1893/2006 Ebazpenaren bidez gauzatu zen: hain zuzen ere, 2.000.000 euroko diru-laguntza eman zion Nafarroako Unibertsitateari, bere langileei eta senide onuradunei gaixotasun arruntak eta lanetik kanpoko istripuak direla-eta ematen zaien osasun-laguntzaren kudeaketan laguntzeagatik. 1893/2006 Ebazpenak zioenez, diru-laguntza eman nahi zitzaion Nafarroako Unibertsitateari, ordaina emateko betebeharra hartu gabe, osasun-laguntzaren kudeaketa horrek sortzen dizkion karga ekonomikoak eta finantza-kargei aurre egiteko, baina betiere Estatuko Administrazioari lankidetzatza horri dago-

kion ordain ekonomikoaren zenbatekoa eskatzeko eta administrazio horretatik jasotako zenbatekoak ordaintzeko (onartutako diru-laguntzaren zenbatekoraino, gehienez ere) betebeharra ezarriz.

Aurreko urtarrilaren 6an Nafarroako Unibertsitateko administrazioaile orokorrak gutuna igorri zion Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, jakinaraziz dagoeneko jaso dutela Estatuko Ogasunaren ordainketa eta baita Estatuko Administrazioaren zordun aitortzen zituen epaiaren behin-behineko betearazpena eskatzeko aurkeztu behar izan zuten jatorrizko abala ere, 2006ko laguntza-zerbitzua ematean sorturiko zenbatekoena. Era berean, eskatu zuen lehenbailehen igortzeko ordainagiria, 2006ko abenduaren 26an onartutako diru-laguntzari zegozkion 2.000.00 €-ak ordaintzeko.

Zenbateko hori ez zegoenez Nafarroaren 2012ko Aurrekontu Orokorretan diru-sarrerara modura aurreikusita, diru-sareren aurrekontuko "Beste itzulketa batzuk" aurrekontu-partidan sartu da.

Ezusteko diru-sarrerara gertatzen denean ohikoa denez, diru-sarreraren zioarekin loturaren bat duten xedeetarako gastuen partidetan kreditua sortzeko eskaria egin daiteke.

Hori dela-eta, Ogasuneko esku-hartzaitzaren ordezkariaren adostasuna lortuta, Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kontularitza eta Aurrekontu Zerbitzuari eskatu zitzaion Nafarroako Unibertsitateko Klinikaren osasun-laguntzetarako partida handitzea, 2.000.000 euroan, hain zuzen ere, eta diru-sarrerara handiagoez finantzatzeko, Nafarroako Unibertsitateak egindako itzulketari esker.

Galdera: 2. Aurreikusita dago aurki erakunde horri beste kreditu-handitzerik eskaintzea?

Aurrekontuen gaur egungo egoera ikusirik, eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak nahiz Nafarroako Gobernuak osasun-laguntzari loturiko neurri ekonomiko eta antolaketan neurri berriak onar ditzaketela kontuan haturik, ez dago aurreikusita erakunde horrentzako kreditu-handitzerik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, osasun alorreko itxaronzerrendak egiteko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du osasun alorreko itxaronzerrendak egiteko erabiltzen diren irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak osasun arloko espezialitateetako, ebakuntza kirurgikoetako nahiz lehenengo kontsulta eta berrikusteetako itxaron-zerrendak egiteko erabiltzen diren irizpideei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00068), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Zer prozedura erabiltzen da itxaron-zerrendak egiteko? Nola eguneratzen dira? Zenbatean behin?

1. Itxaron-zerrenden gaineko informazioa lantzeko oinarriak dira Osasun Sistema Nazionalako itxaron-zerrenden informazioaren trataera homogeneorako neurriak ezartzen zituen maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretuan agertzen diren (2003ko ekainaren 5eko, 134. zk. EAOn argitaratua) definizio, zenbaketa-irizpide eta neurri-adierazleak.

2. Itxaron-zerrenden gaineko informazioa Nafarroako Osasun Arloko Informazio Sistemaren parte da. O-NOZen datu-baseak hileroko eguneratzen dira, modu automatikoan, itxaron-zerrendan dauden gaixoen erregistroan gertatutako mugimenduak kontuan hartuta.

Aldatu egin da aurreko urteetan itxaron-zerrendak egiteko erabiltzen zen modua? Hala bada, zer irizpide aldatu dira?

Ez da aldatu aurreko urteetan itxaron-zerrenden gaineko informazioa lantzeko erabiltzen zen modua.

Zer unetan sartzen dira gaixoak itxaron-zerrendan? Sendagileak esaten duen unean? Edo dagoen hilabeteko agenda zabaltzen denetik aurrera?

1. Kanpo-kontsulten zain dauden gaixoak eskaria egiten duen sendagileak kontsulta eskatzen edo agintzen duen datan sartzen dira itxaron-zerrendaren erregistroan.

2. Ebakuntza kirurgikoen zain dauden gaixoak eskaria egiten duen sendagile kirurgialariak ebakuntza egiteko agintzen duen datan sartzen dira itxaron-zerrendaren erregistroan.

Nola zenbatzen dira "zirkuituan" dabilzan gaixoen kopurua, hurrengo hilabeteko agenda irekita ez dagoen bitartean? Itxaron-zerrenda orokorretan sartuta daude?

1. Egutegi itxia duen espezialitate jakin baterako kanpo-kontsultaren zain dauden itxaron-zerrendako gaixoak agenda-zorroetako erreserbetan sartzen dira, eta "hitzordurik gabeko" gaixo gisa zenbatzen dira, harik eta dagokien agendan hitzordurako tartea gelditzen den arte.

2. "Hitzordurik gabeko" gaixoak hitzordua duten gaixoak nahiz ez dutenak biltzen dituen itxaron-zerrenda orokorreko gaixoen zenbateko osoan sartzen eta zenbatzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, lurzoru industrialaren kokaleku, titulartasun eta erabilgarritasun-datari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du lurzoru industrialaren kokaleku, titulartasun eta erabilgarritasun-datari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak Nafarroan erabilgarri dagoen lurzoru industrialari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00066), hau erantzun du Nafarroako

Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Atxikita dago erabilgarri dauden lurzoruen zerrenda. Zerrenda horretan, honako sinbolo hauek erabili dira lurzoruen jabetza adierazteko:

Nafarroako Gobernuaren ikurra: Nafarroako Gobernua

Logotipo berde-horia: Nasuvinsa.

Logotipo granatea: SEPES.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 18an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru-parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2012-2013 ikasturterako plantillak prestatzeko proposatzen dituen irizpideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak 2012-2013 ikasturterako plantillak prestatzeko proposatzen dituen irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak 2012-2013 ikasturterako plantillak osatzeko irizpideei

buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00067), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskaritako Zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

2012-13 ikasturterako ikastetxe publikoen funtzionamendu-plantillak osatzeko indarrean dauden lege-xedapenetatik eta maiatzaren 9an irakasleen mahai sektorialean aztertutako irizpideetatik ondorioztatzen diren irizpideak hartuko dira kontuan. Honako hauek, hain zuzen ere:

#### Ratioak

a. Haur Hezkuntza:

– 3 urte: 25 ikasle/talde

– 4 urte: 26 ikasle/talde

– 5 urte: 27 ikasle/talde

- b. Lehen hezkuntza. 27 ikasle/talde
- c. DBH: 32 ikasle/talde
- d. Batxilergoa: 35 ikasle/talde
- f. Gainerako ratioak ez dira aldatuko (Lanbide Heziketa, PILE, PCPI, PCPIE, UCA, Curriculum-aniztasuna)

#### Irakasleen jardunaldiari dagokionez

Haur eta Lehen Hezkuntza:

- 23 eskola-ordutik 25 ordurako igoera.
- Taldeko tutorearen irudiarri orain arte zegoen modu berean eutsiko zaio.

Bigarren Hezkuntza eta gainerako irakaskuntzak:

- Lanaldi osoz ari diren irakasleek astean 20 eskola-ordu emango dituzte.

- Prestakuntza zikloetan TAL ordutegian eskolak ematen dituzten irakasleek astean 22 eskola-ordu emango dituzte.

#### Bestelako neurriak

225/1998 FDan irakasleentzat aurreikusten den eskola-orduen murrizketari eutsiko zaio, Haur Hezkuntzan, 55 urtetik gorakoentzat, eta etapa guztietan, 58 urtetik gorakoentzat.

Gainerako irizpideak, ikasleen arretarako ordutegiari loturikoak batik bat (Haur Hezkuntzako laguntza, zuzendaritzaren laguntza, aniztasunaren arretarako orduak, tutoretzat, bikoizketak, landa-eskola, etab.), aurreko ikasturteko berak izango dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, jakitekoa Estatuko Gobernuari eskaera formalik egin ote zaion Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren (Ecofin) bileretan parte hartze aldera.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakitekoa Estatuko Gobernuari eskaera formalik egin ote zaion Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren (Ecofin) bileretan parte hartze aldera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako ECOFINen izandako partaidetzari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-

69), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak:

Legealdi honetan, Nafarroako Gobernuak ez dio inolako eskari formalik egin gobernu zentralari Ecofinen bileretan estatuaren ordezkari modura parte hartzeko.

Nolanahi ere, gai horri buruzko zuzenketa bat aurkeztu da Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokoretan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: aipatutako zuzenketa Diputatuen Kongresuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. 2012ko maiatza, A saila, 5-6 zk.)

## **Galdera, ofizioz eginiko PFEZaren aitortzen murriztapenerako eskubidea ematen duten pertsona lagunduak ez sartzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du ofizioz eginiko PFEZaren aitortzen murriztapenerako eskubidea ematen duten pertsona lagunduak ez sartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 7ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak NZOK prestatutako 2011ko PFEZaren aitortzen murrizketarako eskubidea duten lagundutako pertsonak sartu ez izanari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-70), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

1.- 2010eko PFEZaren kanpainan, autolikidaziorako 187.363 proposamen bidali ziren, eta horietako 91n jasota zegoen lagundutako pertsonarengatiko murrizketa.

2011ko PFEZaren kanpainan, berriz, 193.254 proposamen bidali dira, eta horietako 89k zuten murrizketa hori jasota.

Kontuan hartuta Gizarte Gaiak, Gazteria eta Kirola departamentuak ezarritako irizpide eta baremoen arabera lagundutako pertsonatzat hartutako pertsonen kopurua 2010etik 2011ra jaitsi egin dela (792 lagunetik 625 lagunera), arrazoizkoa dirudi lagundutako pertsonarengatiko murrizketa dagokien autolikidaziorako proposameneren kopurua ere kanpaina honetan aurrekoan baino txikiagoa izatea.

2.- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak PFEZaren autolikidaziorako proposamena nori

bidali erabakitzeke, aitortzen behar bezala egiteko ustez informazio ahalik eta egia eta zehatzena eman duten herritarrek aukeratu dituzte.

Nolanahi ere, informazioa elementu bizia da, eta eguneratu eta aldatu egin daiteke. Hala, eguneratzea zer datatan egiten den, litekeena da autolikidaziorako proposamen batzuk dagoeneko bidalita egotea eta oker egotea, zergadunaren alde, batzuetan, kontra, beste batzuetan.

Nolanahi ere, Nafarroako Zerga Ogasuna organismo serioa eta arduratsua da, eta herritarrei zerga-betebeharrak betetzeko ahalik eta erraztasun gehien ematen saiatzen da, jakina, une oro indarrean dauden xedapenak betez.

3.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina arautzen duen ekainaren 2ko 4/2008 Foru Lege Dekretuaren 84. artikulua zehazten du zergadunak autolikidaziorako proposamena berretsi nahi ez badu zer prozedurari jarraitu behar zaion.

Gogorazi beharra dago autolikidaziorako proposamenak zergadunen helbideetara bidaltzea Nafarroako Zerga Ogasunak herritarren esku jartzen duen bitarteko bat dela, baina betebeharra betetzeko beste bide batzuei arreta emateko ere baliabide material eta humano ugari ezartzen dituela Errenta Aitortzen Kanpainan. Ildo horretatik, PFEZaren Kudeaketa Zerbitzuko eta Zergadunaren Laguntza eta Informazio Zerbitzuko kideak beren zerga-betebeharrak betetzeko laguntza eta aholkularitza behar duten herritar guztien zerbitzura daude. Era berean, zerbitzu publikoak hobetzen lagunduko dituzten kexa, ohartarazpen eta iradokizunak ere jasotzen dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28a

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, jakitekoa Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakitekoa Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Herri Segurtasuneko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen arabera sorturiko Nafarroako Udaltzainen Koordinazio Batzordeko kideen balizko ordainsari ekonomiko edo dietei buruz egindako galderari dagokionez, Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilariak jakinarazi nahi dio batzorde horretako kideek ez dutela jasotzen inolako dietarik edo ordainsari ekonomikorik batzordekide izateagatik, ezta batzordearen bileretara joateagatik ere.

Hori guztia jakinarazten dizut.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli



## Galdera, Burlatako eskola-tailerrari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Burlatako eskola-tailerrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Izquierda Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Burlatako Eskola Tailerrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00072), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Zer dela-eta eten du Nafarroako Gobernuak Burlatako Eskola Tailerrari ematen zion finantzaketa?

Lehenik eta behin, azaldu beharra dago oraindik ez dela balioetsi eta ebatzi eskola-tailerrak eta enplegu-tailerrak finantzatzeko 2012ko diru-laguntzen deialdia.

Era berean, gogorarazi beharra dago Nafarroako Gobernuak eskola-tailerrei eta enplegu-tailerrei enplegu-politika aktibo modura ematen zaizkien diru-laguntzen banaketa Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailearen urriaren 18ko 2925/2006 Ebazpenak arautzen duela, 2001eko azaroaren 14ko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerio Agindua egikaritzuz. Deialdi hori lehiaketa bidez

ebazten da: entitate sustatzaileek aurkeztutako proiektuak balioetsi eta alderatzen dira, puntuazio horren arabera ordenatzen dira, eta ordena horretan finantzatzen dira, aurrekontuan aurreikusitako partida amaitu arte. Ebaluazioa Nafarroako Enplegu Zerbitzuko teknikariek egiten dute, eta deialdiaren ebazpena ebaluazio horri egokitzen zaio, ezinbestean.

Zer finantzaketa eman dio Nafarroako Gobernuak Eskola Tailerrari, sortu zenetik, eta zenbat gazte prestatu eta laneratu dira horri esker?

Nafarroako Gobernuak Burlatako Udalak sustatutako zortzi eskola-tailer finantzatu ditu, 1993. urteaz geroztik; guztira, 7.690.694,97 euroko kostua. 595 ikasle aritu dira eskola horretan.

Nafarroako Gobernuak zer prestakuntza-aukera emango dizkie gaur egun Burlatako Eskola Tailerrean ikasketak egiten ari diren gazteei?

Eskola-tailerrak Nafarroako Gobernuaren politika aktiboaren baliabideak dira, eta horiei utsiko die, lehiaketaren emaitza zehatz-mehatz errespetatuz, lehenengo galderan azaldu bezala.

Nafarroako Gobernuak badu atzera egiteko eta Burlatako Eskola Tailerra finantzatzen jarraitzeko asmorik?

Lehenengo galderaren erantzunean azalduta dago galdera horren erantzuna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 31n

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroa Beherearekiko harreman kultural, merkataritzako, ekonomiko eta sozialak sakontzeko jardueri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa Beherearekiko harreman kultural, merkataritzako, ekonomiko eta sozialak sakontzeko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 7ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroa Beherearekin kultura, merkataritza, ekonomia eta gizarte arloetako harremanetan sakontzeko jardueri buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00071), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

#### **1. Turismoaren arloko harremanak**

Turismoko Produktuen Marketing eta Garapeneko Eragiketa Planean Nafarroa Beherearekin loturiko zenbait ekintza biltzen dituzten programa batzuk agertzen dira.

#### Produktu eta ibilbide tematikoen kategorien programa

Mugaz bi aldeetako bailaretan arrantza iraunkorra sustatzeko GEVERT europar proiektuan parte hartzea, Ingurumeneko Departamentuaren bidez. Turismo Departamentuak prestakuntza-jardunaldietan parte hartu du 2012an, Bertiz, Orreaga, Otsagabia eta Erronkariko turismo-bulegoen bidez, arrantza iraunkorrari loturiko eskaintzaren berri emateko.

2012an prestakuntza-saioak egin dira honako herri hauetan:

Auritz: otsailak 17 eta 18

Erronkari: martxoak 2 eta 3

Donibane Garazi: martxoak 30 eta 31

Maule: apirilak 20 eta 21

Saio horien bidez, eragileen arteko elkarlana sendotu nahi da, baterako beste produktu eta turismo-eskaintza batzuk lantzeari begira.

#### **INFORMAZIO ETA HARRERA TURISTIKOKO PROGRAMA**

Donibane Garaziko turismo-bulegoarekin elkarlanean ari gara, bulego horretan Nafarroari buruzko informazio turistiko batzuzko programa. Zehazki, honako hauek banatzen dira: Orreagari buruzko informazioa, Nafarroako gidak, mapak eta Donejakue Bideari buruzko argitalpenak.

Bestalde, Orreagako turismo-bulegoan, Donibane Garaziko bulegoaren informazioa banatzen da.

Iraunkorki egiten da lan hori.

#### Publizitate turistikoari buruzko programa

Nafarroako turismo-kanpainako hedabideen planean, 2012an Frantzia hegoaldeko merkatuan (Nafarroa Beherea barne) publizitatea egitea aurreikusi da.

Aurten aukeratutako hedabidea Sudoest egunkaria da, haren on line eta off line euskarriak barne. Frantziako 2. eskualde-egunkaria da: 390.540 ale saltzen ditu (OJD, 2010), eta 1.287.000 irakurle dauka (TNS Sofres). Publizitate-kanpaina 2012ko martxotik abendura gauzatuko da.

Iragarkiak eta erreportajeak argitaratuko dira honako hauetan: Sudoest igandekaria, Sudoest Le Mac, Femina bertsioa eta on line euskarri guztiak.

#### **2. Enpleguaren arloko harremanak**

NEZek Nafarroa Behereari buruz egingo dituen jarduerak Nafarroako Gobernuaren eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren arteko 2011-2014 aldirako mugaz haragoko lankidetzaren esparru-akordioan bilduta daude.

Zehazki, eta 2012. urtera arte, akordio horren 5. atalean zehaztutako jarduerak egingo dira:

2012an, Frantziako ordezkariak bisita antolatu nahi du Ilundain Haritz Berri Fundaziora.

2013rako, berriz, hauek dira asmoak:

Nafarroako Tokiko Garapenerako Eragileen eta Pirinio Atlantikoetako Tokiko Murgiltze Suspertzaileren arteko topaketak antolatzea.

Familia gurasobakarrentzat eta ijitoentzat gizarteratze-laneratzeko programa paraleloak abian jarzea.

Informazioa trukatzeko, gizarteratze-laneratzeko zentro eta tailerrek eta eskola-tailerrek proiektu komunak bidera ditzaten.

### 3. Landa-garapenaren arloko harremanak

a) Landa-garapenaren arloan hiru proiektu gauzatu dira:

- Haragia zuzenean saltzeko merkatuaren garapena.
- Zailtasunak dituzten gaztagileei laguntzea (adibidez, Baztango gaztagileei)
- Euskal txerriaren garapena eta mugaz haragoko egituraketa.

b) Landa Garapenerako Planaren nekazaritzaz bestelako jardueren dibertsifikazioa sustatzeko ildoan, euskal txerriari buruzko proiektu bat finantzatu da Lekunberrin: kamerak, erakusketa eta salmenta. Enpresak (JAUCHA, SL) merkataritza-harremanak egin ditu Nafarroa Beherean euskal txerria merkaturatzeko lanean ari den elkarte batekin. 64.417,38 euroko diru-laguntza eman zaio, erdia FEADERek jarria eta beste erdia Nafarroako Gobernuak jarria, 2009 eta 2010eko ekitaldietarako.

c) Baliabide turistikokulturalak eta tokiko produktuak sustatzeko eta nabarmentzeko proiektua: 2011n, Nafarroan 16.972,00 euroko inbertsioa, LEADER diru-laguntza, 8.112.60 euro; turismoko diru-laguntza ere badu. Donibane Garaziko eta Baigorriko bailarekin harremana dute Nafarroa Beherean. Paseorako ibilbideak prestatzen ari dira.

d) Cederna-Garalur Tokiko Garapen Agentzia-ko agenteek lan-harremanak dituzte Nafarroa Behereko Tokiko Garapen Agentzietako agenteekin.

Proiektua	Nafarroako bazkidea	Nafarroa Behereko bazkidea	Esleitutako urteak	Esleitutako zenbatekoa	Proiektuaren helburua
FINMA	Eugiko Kontzejua	Baigorriko Organoaren Elkarte	2010 eta 2011	2010 urtean, 6.606,80 € 2011 urtean, 6.946,50 €	Nazioarteko musika jaialdia egitea: kontzertuak, musika-estreinaldiak, tailer eta kontzertu didaktikoak haurrentzat, eta Sarasate beken partaidetza bat, kontzertuetan.
Nafarroa-Nafarroa Beherea, kirola	Baztan Rugby Taldea	US Nafarroa (Donibane Garazi)	2011 eta 2012	2011 urtean, 672,42 € 2012 urtean, 672,42 €	Errugbi-taldearen eta kirol-hezitzaileen arteko trukea. Errugbia praktikatzeko eta, aldi berean, jarduera horren bidez gizarte-onurak lortzea, kultura- eta hizkuntza-trukea sustatuz.
700 urtetik gora elkarrekin	Aurizko Udala	Bastidako Udala	2011	2011 urtean, 1.539,10 €	Polo historikoa: Bastida udalariaren eta Eusko Ikaskuntza elkartearen arteko hitzarmena sinatzea. Polo ekonomiko eta turistikoa: Artisautzako bi azoka eta artisauak sarean jartzea eta gazteen arteko truke kulturala sustatzea. Polo artistikoa: Egonaldiak eta ekitaldiak antolatzea: arte bisualak, musika eta dantza
Lindux-Oreaga baliabide turistikoa	Luzaideko Udala	Baigorriko Udala	2010	2010 urtean, 8.010,78 €	Askotariko ekimenak biltzen dituen proiektu turistikoa: webgunea, mapa interaktiboa, mugaz bi aldeetako ibilbideak, baliabide, produktu eta monumentuen hiru dimentsioko formatu interaktibo digitaleko aurkezpenak, eta beste produktu berri batzuen sustapena, lurralde-ikuspegi bateratu batean oinarrituta eta nazioaz haraindiko lankidetzaren bidez.

Eugiko eta Aurizko proiektuek laguntzak jaso dituzte 2010ean eta 2011n. 2012. urterakoak esleitu gabe daude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, gizarteratze- edo laneratze-errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Xabier Lasa Gorraiz jaunak galdera egin du gizarteratze- edo laneratze-errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Xabi Lasa Gorraiz jaunak Nafarroako Gobernuak Gizarteratze Errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetan soldata-kostua finantzatzeko hartutako neurriari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00073), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Apirilaren 11n kontseilari honek emaniko 153/2012 Foru Agindu bidez ezarri ziren, hain zuzen ere, Nafarroako enpresek, entitate pribatuek edo tokiko erakundeek Gizarteratze eta Laneratze eta Enplegarritasuna Hobetzeko Laguntza edo Gizarteratze Errenta jasotzen duten pertsonak kontratatze laguntzak arautzeko oinarriak.

Foru Aginduaren 3. atalak dioenez, deialdi horretako gastua (1.000.000 eurokoa) 900003 91600 4809 231504 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da ("Enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko 2012ko gastuen aurrekontuko osagarria").

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak: Elena Torres Miranda

## **Galdera, 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak aurrekontu-murrizketen aplikazioari eta gastu publikoa doitzeko eta arrazionalizatzeko neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00074), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak:

– Hezkuntza Itunean finkatutako plantilak ez betetzea: Administrazioaren aburuz, ez da bete Hezkuntza Itunak plantilak osatzeari buruz ezarritakoa.

– Funtzionario irakasleen soldata-murrizketa: aipatutako epean kontzeptu horren gastu txikiena 26.386.942 eurokoa da, estimazioen arabera.

– Bigarren Hezkuntzako plantiletako murrizketak ekarritako aurrezki, 2011n: Bigarren Hezkuntzako irakasleen gastuetan 3.829.286 euroko jaisiera izango da 2011/12 ikasturtean.

– 2010/2011 ikasturtean ikasketa-baimenak ezabatzea: 1.134.479,90 euroko aurrezki eragingo duela estimatu da.

– Erretiro-primak: 2011/2012 ikasturterako ez da izango estatuaren Hezkuntza Lege Organikoa-

ren saririk. Nafarroako Gobernuak zenbateko osagarri bat ordaintzen duen, baina estatuaren saria amaitu zen urte berean amaitu zen osagarri hori ere. Estatuko ordura arteko araudiak indarrean jarraitu balu, Nafarroari 2.039.702 euro inguruko kostua eragingo zion.

– Familia-laguntza: Familia-laguntza aurreko urteetako ehuneko berean mantendu da, funtsean.

– Laneko bajak ez ordezkatzeari: ezin kalkula daiteke ordezkatu gabeko bajen zenbatekoa. 2011/2012 ikasturtean ordezkapenetan izandako gastua eta 2010/2011 ikasturtean izandakoa alderatuta, 860.682 euro gutxiagoko gastua izan da, absentismo gutxiago egon izanaren ondorioz eta ikasturte hasieran eta 2012ko urtarriletik aurrera ordezkapenetarako ezarritako irizpideen ondorioz.

– Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilak murriztea, eskola-orduak igoz, 2012-2013 ikasturterako ratio-igoera, eta administrazioarentzako aurrezki: galdera honi erantzun zaion datan artean plantilak prestatzen ari direnez, ezin zehaztu daiteke zenbateraino murriztuko diren eta, beraz, zenbateko aurrezki ekarriko duen murrizketa horrek.

– Irakaskuntza pribatu itunduko lanpostuen galera, ratio-igoeraren aplikazioaren ondorioz: irakaskuntza itunduan ratioaren igoera aplikatu izanak ez du ia batere eraginik izan, 14/2012 Errege Lege Dekretua onartu aurreko ratioa gaintuz gero ikasgelak automatikoki bikoiztu ez izanaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak apirilaren

25ean aurkeztutako Nafarroako koadro makroekonomikoan agertzen den enpleguaren aurreikuspenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00076), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

1.- Interpretazioa ez da zuzena.

2.- 2012an Nafarroako enpleguari buruz estimazioz kalkulaturako %2,4ko atzerapena urteko batez besteko aldakortasun modura interpretatu behar da.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bilkurei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bilkurei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutzaren Sortzaile Batzarrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00077), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutzari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzen baita.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzen baita.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Kutzaren Sortzaile Batzarrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00082), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutzari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutzaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutzaren Industria Korporazioak partaidetutako enpresei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00081), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutzari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutxaren Sortzaile Batzarrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00078), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutxari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutxaren Sortzaile Batzarrari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00079), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutxari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla



## **Galdera, Nafarroako Kutzaren 2002tik 2012ra arteko balantzeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzaren 2002tik 2012ra arteko balantzeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 18ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutzaren Balantzeei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00080), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutzari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen langileen historia eskuratu ahal izateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen langileen historia eskuratu ahal izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezquerria parlamentu-taldeko foru-parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko prebentzio-zerbitzuetako profesionalen adostasun jakinaraziz Nafarroako Gobernuak langileen historia eskuratzeko neurriari dagokionez Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren neurri hori aplikatuz zer asmo duen eta gaixotasunaren prebentzioari eta osasunaren zain-

tzari loturiko zer helburu lortu nahi diren argitzeko eskatuz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00085), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak:

Helburua da langileari aurre egindako analisiak edo probak (halakorik balego) berehala eskuratzeko modua izatea, bereziki gaixotasun biologikoa gertatuz gero (xiringekin zizatzea, etab.), atzerapenik gertatzeko edo probak bikoizteko arriskurik gabe.

Era berean, aipatu beharra dago Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko profesionalen historia klinikoak eskuratzeko aukera izan dezaten langileak ageriko adostasuna adierazi beharko duela, Nafarroako Foru Komunitatean osasun arloan pertsonen dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 67.1 artikulua agintzen duenarekin bat etorrira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, indarrean dauden Nafarroako Kutzarekiko hitzarmenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du indarrean dauden Nafarroako Kutzarekiko hitzarmenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Caixaban-

kek Nafarroako Kutxa bereganatu ondoren kutxa harekiko indarrean dauden hitzarmenei eta bereganatze horren ondorioei buruz idatziz erantzuteko egindako galderei dagokienez (PES-00086), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Kutxari dagokio galdera horri erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Kutzarekin edo haren edozein erakunderekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzarekin edo haren edozein erakunderekin sinatutako hitzarmenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Kutzarekiko hitzarmenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00084), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Azken 10 urteetan 61 hitzarmen sinatu dira, eta horietatik honako hauek daude indarrean (ikus dokumentu atxikiak):

– Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutzaren Gizarte Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena, Civicán Liburutegia (José María Lacarra kalea) Nafarroako liburutegi-sisteman sartzeari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutxa finantza-erakundearen arteko lankidetzahitzarmena, honako bi foru-dekretu hauen aplikaziotik eratorritako inbertsioak eta gastuak finantzatzeari buruzkoa: apirilaren 17ko 162/2000 Foru Dekretua, nekazaritza ustiatagietako inbertsioetarako eta nekazari gazteen lehen instalazioetarako laguntzei buruzkoa, eta abenduaren 30eko 280/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateak nekazaritza-sektoreari estatuko laguntzak emateko araudia onartzen duena.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta Nafarroako Kutzaren arteko lankidetzahitzarmena, enpresa-inbertsioak laguntzeko

finantza-alkairuko eragiketetan interes-hobariak emateari buruzkoa.

– Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta Nafarroako Kutxaren arteko lankidetzaren hitzarmena, enpresa-inbertsioak laguntzeko mailegu-eragiketetan interes-hobariak emateari buruzkoa.

– Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako ekonomia suspertzeko mailegu-bermerako abal bidezko laguntzei buruzkoa.

– Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta Nafarroako Kutxaren (Banca Civica Taldea) arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatean enpresen eta erakunde publikoen eragingarritasun energetikoko proiektuak finantzatzeari buruzkoa.

– Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako ekonomia suspertzeko mailegu-bermerako abal bidezko 2011ko laguntzei buruzkoa.

– Laguntzen eskari bakarra betetzeko eta erregistratzeko lankidetzaren hitzarmena.

– Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena, zailtasunak dituzten enpresei mailegu-bermerako abal bidezko laguntzak emateari buruzkoa.

– Nafarroako Kutxak Zudaire eskola-udalekua-  
ren eraikina eta instalazioak Nafarroako Foru Aldundiari lagatzeko hitzarmena, eta haren luza-pena.

– Prestakuntza arloko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mendeko lanbide-heziketako irakasleak Nafarroako Kutxan teknikoki eguneratzeari buruzkoa.

– Ikastetxearen (Lizarrako Ikastetxe Politeknikoa) eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, lantokian prestakuntza garatzeari eta beste prestakuntza-jarduera batzuk bideratzeari buruzkoa.

– Ikastetxearen (Donapea) eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, lantokian prestakuntza garatzeari eta beste prestakuntza-jarduera batzuk bideratzeari buruzkoa.

– Ikastetxearen (Cuatro Vientos Institutua) eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, lantokian prestakuntza garatzeari eta beste prestakuntza-jarduera batzuk bideratzeari buruzkoa.

– Ikastetxearen (María Ana Sanz) eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, lantokian prestakuntza garatzeari eta beste prestakuntza-jarduera batzuk bideratzeari buruzkoa.

– Ikastetxearen (Carlos III.a Eskola Teknikoa) eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena, lantokian prestakuntza garatzeari eta beste prestakuntza-jarduera batzuk bideratzeari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirola departamentuaren eta Nafarroako Kutxaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.

– Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria departamentuaren eta Nafarroako Kutxaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Mendekotasunaren Arretaren "Nafarroa" Nazioarteko Sariaren 2012ko ekitaldiari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutxaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langile finkoei soldata-aurreerakinak onartzeko sistemaren aplikazioari eta aldaketari buruzkoa.

– Nafarroako Kutxaren eta Nafarroako Zerga Ogasunaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondare Zergaren autolikidazioak prestatzeko laguntza-zerbitzuari buruzkoa.

– Prestakuntza-praktikak lantokietan egiteari buruzko lankidetzaren hitzarmena (Ibaialde BHI-Burlata)

– Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren eta Volkswagen Navarra-Nafarroako Kutxa Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

